



3 GIZARTEA
Ina Orotegi eta Niko Francisco herrian dira

Duela bi aste aske geratu ziren Mitzel Turrientes eta Txurdi Rezabal eta asteartean Ina Orotegi eta Niko Franciscoren txanda izan zen. Hauek ere 27 eta 26 urte egin dituzte espetxean. Lehenengoa Zueratik atera zen eta bigarrena Herrera de la Manchatik. Lasarte-Oriako presoeren artean ez da beste kaleratzerik aurreikusten.

5 ELKARRIZKETA
Egaña, Arzallus eta Lujanbio Arrieskalletan

Abenduaren 5ean Arrieskalleta elkartearen bertso afaria egingo da. Honetan Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Andoni Egaña arituko dira. Azken honekin hitz egin dugu Bertso Txapelketa Nagusiaz eta bertso eskolek egiten duten lanaz. Egañarentzat ezinezkoa litzateke egun BEC-eko ikuskizun handia tokian tokiko bertsozale mugimendurik gabe. Lasarte-Oriako bertso eskola ere ereduagarria dela aipatu du



Unitate psikogeriatrico berria

Atsobakar egoitzaren zerbitzu berriak 15 erabiltzaile ditu



Unitate berrian lan egiten duten Atsobakar egoitzako profesionalak Pablo Barrio alkatearekin batera aurkezpen egunean.

Erabiltzaileek zituzten beharretara egokitzeko egin da bigarren solairuan kokatu duten unitate berezitua. Asteazkenean aurkeztu zuten udal ordezkariak egoitzako langileekin batera. Orain 15 egoile daude unitate honetan eskaintzen den zaintza berezitua jasotzen.

Asteazkenean aurkeztu zuten udal ordezkari eta Atsobakarreko langileek unitate psikogeriatrico berria. Egoitzako bigarren solairuan kokatu dute eta alkateak adierazi moduan, egoileen familiekin egin da lanketa zerbitzuak behar guztiak ase zitzen.

Ez da unitate itxi bat, bertan dauden aitona-amonek behar psikiatrikoak dituzte baina euren egoera egonkortzen denean egoitzako gaitortzeekin bueltatu daitezke. Familiarekin ere ataratzeko aukera dute medikuek hala baimentzen dutenean.

Monika Uribe egoitzako

zuzendariak eta langileek aipatu zuten, betidanik izan dute egoitzan dauden aitona-amonek zaintza mota hau baina espazioa ez zegoen berezitua eta orain askoz modu egokiagoan eskainiko dute.

Espazio aldetik, ihes egiteko arriskua dutenen kontrolerako ateak eta leihoak modu automatikoan ixten dira eta kamara bidezko sistema batek langileei ahalbidetzen die gela guztietan gertatzen dena ikusteko. "Atentzioaren kalitatea asko hobetu da egin den espazioaren moldaketa eta kamerak bezalako hobekuntzei esker".

Orain arte jarraipen psikiatrikoa behar zuen egoileak zentro ezberdinetara mugitu behar ziren medikuarekin harremanetan egoteko "bakoitzari medikazio bat jartzen zion bere medikuak eta horrek hemengo lana koordintatzeko garaian zailtasunak sortzen zituen". Orain Osakidetza psikiatra bat egoitzara hurbilduko da eta berak ikusiko ditu guztiak. Medikazioaren jarraipena egingo die eta egoitzako medikuarekin batera adostuko ditu tratamenduak.

Egoitzatik mugitu gabe

Gainera egoitzatik ez dute mugitu beharko bestelako errehabilitazioa egiteko. Orain arte, gaixotasun psikiatrikoak zituzten egoileak Matia bezalako beste zentro berezietara bidaltzen ziren adibidez beso bat puskatu ondoren, honen mobilitatea mantentzeko

ariketarik egin ahal izateko. Orain gainontzeko egoileak bezala, zentroan bertan dute aukera mota honetako errehabilitazioa egiteko.

Atsobakarreko psikologoek aipatu zuten unitate berezituak giro aproposa eskaintzen du gaixoen lasaitasuna bermatzen duelako eta horrek gaixotasunean hobekuntzak dakartza. Izan ere, bertan dauden egoileek portaera arazoak dituzte nagusiki.

Egun Atsobakar egoitzan 51 aitona-amona daude eta horietatik 15 unitate berrian. Agerraldian unitate psikogeriatricoan lanean jardun diren profesionalak eurek aukeratu dutela bertan lan egitea azpimarratu zuten eta "beharrezkoa izan denean trebatu egin dira langileak". Alkateak aipatu zuenez, egoitzan unitate berria antolatzeke Aldundiak 37.000 euroko laguntza eman du.

Urtebetetzeko meriendak festak antolatzen ditugu

Ostegunetan PINTXO POTE

ZULO

Asteazkenetik Igandera 17:00etatik aurrera IREKITA

Zulo Artoa: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte
WWW.SALAZULO.COM

GIZARTEA

Orotegi eta Francisco herrian

Ina Orotegi eta Niko Francisco presoak aske geratu dira

Duela bi aste aske geratu ziren Mitxel Turrientes eta Txurdi Rezabal eta asteartean Ina Orotegi eta Niko Franciscoren txanda izan zen. Hauek ere 27 eta 26 urte egin dituzte espetxean. Lehenengoa Zueratik atera zen eta bigarrena Herrera de la Mancha.



Ina Orotegik espetxetik ateratzean ama zeukan zain.

TXINTXARRI

Duela bi aste 27 urteko espetxealdia bete ostean Kepa Rezabal eta Mitxel Turrientes Lasarte-Oriako presoak libre geratu ziren. Asteartean berriz, Ina Orotegi eta Niko Franciscoren kasuak aztertu zituen Auzitegi Nazionalak eta Herrera de la Mancha eta Zuerako espetxeetatik atera ziren.

Ina Orotegiren senideek azaldu moduan asteartean goizeko 9:00ak inguru jakin zuten euren kasuak aztertuko zituztela, hala ere, ziur jakin arte ez ziren espetxeetara abiatu. Lana dela eta lagun askori erabakiak ezustean harrapatu zituen baina hala ere, ahal izan zutenak senideekin batera joan ziren Zaragoza eta Ciudad Realera.

Ina Orotegik 22 urte inguru eman zituen Herrera de la Mancha, ondoren bi urte

Galiziako A Lama-n eta azken urteak Zaragozako Zueran. Honetatik atera zen astearte arratsaldeko bostak inguruan. Beranduago atera zen Niko Francisco Herrera de la Mancha eta biak Lasarte-Oriara abiatu ziren.

Turrientes eta Rezabal atera zirenean bezala, lagun eta senideen artean urduritasuna eta poza nagusitu ziren. Extera iristean Orotegik adibidez, arrautza frijituak prestatu zituen afaltzeko, "aspaldi zuen kapritxo".

Denera, Parot doktrina ezarrita zuten 58 euskal preso aske uzteko agindu dute Espainiako auzitegiek, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Ines del Rio preso ohiaren kasuarekin doktrina

bertan behera utzi ondoren. Erabakia hartu zenetik guztira 50 preso geratu dira aske. Lasarte-Oriako presoen artean ez da beste kaleratzerik aurreikusten publiko egin diren zerrendei erreparatuta.



Niko Francisco espetxetik ateratzean.

TTAKUN ELKARTEA

Talo ikastaroa

Gabonak gertu daude, Santo Tomas egunean hainbesteko arrakasta duten taloak dastatuko dituzte herritar askok ziur.

Aurretik ordea urtean behin soilik jan nahi ez dituztenentzat, Talo ikastaroa antolatu du Ttakunek abenduaren 9an. Arrieskalleta elkartearen egingo da 18:00etatik 20:00etara saioa. Parte hartzea irekia da eta Ttakunen izena eman beharko da.

UDALA

Euskara eta Gazteak azterketaren emaitzak

Euskararen egunean, abenduaren 3an Lasarte-Oriako udaleko Euskara sailak gidatutako "Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian III" azterketaren liburuxka aurkeztuko da.

Honetan Pello Jauregik herriko gazteen hizkuntza portaera aztertu du. Orain dela 20 urte egin zuen udalak halako lehenengo azterketa, bigarrena 2002an egin zen eta aurkeztuko dena 2012. urtean burutu da. 13 eta 24 urte arteko herritarren artean hartu du lagina ikertzaileak eta 20 urte hauteko bilakaerari arreta jarri dio.

Ondorioen artean aipatzen da "Lasarte-Orian euskararen erabilera indizea nabarmen gora egin duela azken urteetan". Baina "oraindik urruti dagoela normalizazio egoeratik".



EMAKUMEAK

Indarkeriaren aurkako elkarretaratzea

Astelehenean emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna izan zen, Azaroak 25. Lasarte-Orian emakumeen zentroak hilabete zehar egitarau berezia antolatu zuen, honen baitan egin zuten ere elkarretaratzea Okendo plazan.

Herriko emakumeek "indarkeriarik ez" leloa zuen pankarta erakutsi zuten. Hauekin batera alderdi desberdinetako zinegotziak, Bildu, EAJ, LOHP edo PSE-EE, egon ziren.

Ez zen egun honetan herrian egin zen ekimen bakarra. Institutuko gazte talde batek kamiseta morea jantzita argazki atera zuen. "Ikasleok ere generoen arteko indarkeriarekin bukatu nahi dugulako" azaldu zuten.



Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko hitzaldira herritar asko hurbildu ziren.

Olentzeroren etxera bisita

Abenduaren 23an, astelehenean Olentzeroren etxera irteera antolatu du hirugarrenez Amaraunek. Izenaduba Basoak Lasarte-Oriako umeak hartuko ditu Olentzeroren etxera eguneko bezperan.

Bertan Olentzero beraren etxea ezagutzeaz gain, euskal mitologiako hainbat pertsonaia ezagutzeko aukera izango dute joko eta jolas dibertigarri bidez. Ez dira faltako hauen artean puntako teknologiak 3D simulagailu eta guzti.

Mungian, Bizkaian, kokatutako dago Izenaduba basoa eta honetara antolatzaileek azpimarratu moduan, joan ahal izango dira 2009, 2008, 2007 eta 2006an jaiotako haurrak. Goizeko 10:00etan aterako dira autobusean



Olentzeroren etxea ezagutuko dute parte hartzen duten umeak.

Zumaburuko jubilatuen egotza pareko autobus paradatik eta 15:30ean inguru bueltatuko dira. Leku berean jasoko dira umeak.

Haurrek hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute etxetik.

Irteera honetan parte har-

tzeko aurrez izena eman beharko da Ttakuneko bulegoan. Plazak mugatuak dira, beraz ahalik eta lasterren lekua hartzea gomendatzen dute antolatzaileek. Ttakuneko bazkideek 22 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 25 euro.

Jardunaldi arrakastatsuak

Astelehenean hasita eta atzo bitartean XXI. Osasun Jardunaldiak egin dira Manuel Lekuonan.

Aurtengoan zahartze aktiboa izan da gai nagusia eta egun hauetan asko izan dira hitzaldietara gerturatu diren herritarrak. Lehenengo saioan Enrique Contreras, Osasun zentroko zuzendariak, Yolanda Atorrasagasti, familia medikuak eta Karlos Altuna, Kirol Zerbitzuko arduradunak jardura fisikoa eta elikaduraren garrantziaz hitz egin

zuten. Bi alderdi hauek zain-tzeak dakartzen ondorio onak aipatu zituzten besteak beste.

Asteartean, Maite Higue-rok Gizarte Zerbitzuetako arduradunak herrian eskura dauden zerbitzuei buruz mintzatu zen. Aingeru Mayor sexologoaren hitzaldiak ere jende andana erakarri zuen asteazkenean.

Bart jardunaldiei amaiera emateko "Zahartze aktiboa, Lasarte-Oriako komunitatearen esperientzia bat" proiektua ikusi ahal izan zen.

Jaialdi nikaraguarra Lasarte-Orian

Nikaraguar komunitateak bere herriko kultura ezagutzera emango du asteburuan

Lasarte-Oriako nikaraguar komunitateak, Udalaren laguntzaz, gaur eta bihar "I. Jai nikaraguarra. Denok aniztasunaren alde" jaialdi antolatatu du. Lasarte-Oriako herritarrek Nikaraguako kultura eta gastronomiako zertzelada bat ezagutzea da helburuetako bat, bestea nikaraguar eta bertako herritarrek pixka bat hurbiltzea. Izan ere, aniztasunaren gaia modu desberdinetara lantzen ari baita Udala.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako nikaraguar komunitateko lagunek eta Udalak ostiralean eta larunbatean gure herrian egingo den I. jai nikaraguarra aurkeztu zuten astelehenean. Honetarako Gorka Lizarraga, Gizarte Zerbitzu eta Aniztasun sailtetako zinegotziaren babesa izan zuten.

Aniztasun sailtetako zinegotziak azaldu zuen legez, "Lasarte-Oriako Udala aniztasuna lantzen ari da eta ekintza hau ekimen horren barruan sartu nahi izan dugu".

Lizarragak adierazi moduan, "herrian dauden komunitate desberdinak

herriaren parte izatea nahi dugu".

Lasarte-Orian dagoen nikaraguar komunitatea handia dela aipatu zuen aurkezpenean, "400 bat nikaraguar daude erroldatu" eta beraz, I. jaialdi nikaraguar hau garrantzitsua da Udalarentzat.

Pedro Lopez "Tabaran" nikaraguar komunitateko kideak "gure kultura aberatsa da. Udalaren laguntzaz, bertakoei hurbildu eta gu ezagutzea nahi dugu," aipatu zuen.

Eta komunitate nikaraguarra eta bertako jendea jaialdian bitartez, hurbildu nahi dutela ere adierazi zuen. "Integrazio arazoak daude. Nikaraguarrek alde batetik doaz eta hemengoak bestetik.



Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta nikaraguar, zein peruar komunitateko lagunak aurkezpenean.

Horrek ez luke horrela izan behar".

Jaialdia

Jaialdia gaur ostirala, 22:00etatik aurrera hasiko da Abend kafe-antzekian. Bertan "Abraham Castellon y Los Recoge Baba" taldearen kontzertua izango da.

Bihar, berri, "kermes" bat antolatuko da Okendo plazan. Honetan, goizeko 10:00etatik 14:00etara janaria eta dantza izango dira nagusi.

Nikaraguako kultura eta gastronomiaz gain, Kolonbia eta Peruko hainbat produktu ere eskainiko dituztela adierazi zuten agerraldian. "Cebiche-a, bao, txerria jucarekin... hainbat plater dastatzeko aukera izango da eta nikaraguar talde batek ere gure dantzak eskainiko ditu".

Elkartea

Aurkezpenean aurreratu zuten, nikaraguar komunitatea bilduko duen elkartea sortze-

ko lehen pausoak ematen ari dira.

"Bertan bizi diren herri-deei haien eskubideak eta informazioa eskaintzeko balioko du. Eta bertako komunitatean sentsibilizazioa lantzeko ekimenak ere egingo ditugu, jaialdi hau bezala," aipatu zuen "Tabaran"-ek.

Azkenik, Lasarte-Oriako Udalak eta nikaraguar komunitateak herritar guztiak gonbidatzen ditu jaialdian parte hartzera.



Euskal jantzi tradizionalen ikastaroa amaitu eta talde iraunkor bat sortuko da.



Jostungintza tailerra urtariletik aurrera.- Ttaku kultur elkarteak azken urteetan, antolatzen duen euskal jantzi tradizional ikastaroa oinarri hartuta, "Titare" jostungintza taldea sortu nahi du.

Ttaku arduradunek azaldu dutenez, euskaraz harremanak sustatzeaz gain, taldearen helburua herriko elkarte edo taldeek izan ditzaketen beharrak asetzera izango litzateke, hala nola, Inauteriak edo Santa Ana Parodiako jantziak egin edo konpontzen.

Udalaren laguntzaz, talde honek urtariletik aurrera, ostegunetan 15:00etatik 17:00etara Lasarte-Oriako emakumeen zentroan egingo du lan. Herritarrek honetan parte hartzera gonbidatzen ditu kultur elkarteak eta honetarako Ttaku bulegoan edo 943 371 448 zenbakian izena eman behar da.

ALCAR VENTANAS

Zuregandik hurbil

Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

GUARDIAN SUN KÖMMERLING Bandalux CORTIZO

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jaialdi gaitzazu Facebooken! Gure jantziak eta artelanak, lasarte herriko gure irribarri berrira lantzen ditugu.

Me gusta

PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

- Leihok
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakuslehoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak

- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Dutzako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak

ERAKUSKETA

Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa - (Lehenko Doble J)

TALERRA

Ibaiondo, 4 erdisotua 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

Andoni Egaña Bertsolaria

"BEC ez litzateke tokian tokiko bertso mugimendurik gabe"

Abenduaren 5ean bertso afaria izango da Arrieskalletan Arzallus, Lujanbio eta Egañarekin

Arrieskalleta elkarteak Erra! Bertso eskola eta Ttakunekin batera bertso afaria antolatu du abenduaren 5erako. Aferia 21:00etan hasiko da eta bertan arituko dira Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak. Saiori "Azken esparña, neurriko esparña" izena jarri diote Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalarekin duen gertutasunagatik. Hau abenduaren 15ean izango da BECen. Andoni Egaña ez da egun horretan oholztan izango eta inbidiarik sentitzen ez duela dio.

Maidar AZURMENDI

Andoni Egaña bertsolaria lau aldiz jantzi du Txapelketa Nagusiko txapela. Aurtengoan ez da BECen egongo eta inbidiarik ez duela sentitzen dio. Hala ere etxeko intimitatean gozatzeko ari da txapelketako saioak ikusten. Arrieskalletan Amets eta Maialenekin izango da eta saio bikaina izango dela uste du bi bertsolari gazteak oso prestatuak etorriko direlako. Horretaz gain, bertso eskolek duten garrantzia azpimarratu nahi izan du.

Abenduaren 15a gertu dago... Nola ikusten duzu Txapelketa?

Txapelketako saioak etxetik jarraitu ditut eta egia esan asko disfrutatzen ari naiz. Lehenengo aldiz etxeko intimitatean ikusi ahal izatea asko gustatzen zait eta benetan gozatzeko ari naiz.

BECEko oholztara igo behar diren urduritasuna faltan botatzen duzu?

Ez dut faltan botatzen, inbidiarik ez didate ematen. Hori bai, saioak ikusten ditudanean ia nahi gabe gaiak nire buruari jartzen hasten naiz. Ariketa ona da trebatzeko eta saioetarako prest egoteko. Bi

ordu libre edukita berehala hasten naiz nire buruari gaiak jartzen eta bertsoak pentsatzen. Hala ere, ez dauka zerikusirik lehiarekin nire bertso maila non dagoen eza-gutzeko jakin minarekin baizik.

Maialen eta Amets urduri egongo dira...


Ez dut uste. Lasarte-Oriara finala baino 10 egun lehenago joango dira eta beraiantzat gozatzeko saio bat izango dela pentsatzen dut.

Noski trebatzeko baliagarria izango zaie. Hain zuzen bertsolaritzak daukan faserik politena entrenatze hori da. Zure burua prestatzea etor litekeenerako. Gainera elkarrekin egin ohi dugu. Oso polita izaten da, gero oholztan lagun baina lehiakide izango direnekin txapelketa prestatzea.

Lehia egoten al da bertsolarien artean?

Bertsolaritza eta txapelketa ez da kirol parametrotan neurtzen.

Oso ohituta gaude aipatutako kirol lehiarekin parekatzea, irabazi, galdu, berdindu baina bertsolaritza ez da horrelakoa. Lehia nagusiena norberak bere buruarekin dauka eta inoiz ez dut bertso-



Ttakunek antolatutako "Hango eta Hemengo" bertso saioan parte hartu zuen Andoni Egañak Manuel Lekuonan maiatzean.

lari bat entzun beste baten akatsengatik pozten. Saio on bat eginda txapelketa galdu arren ere, bertsolaria etxera pozik joango da lan ona egin duelako. Desberdina da.

Txapelketa egonda bertsotzaileen arteko giroa desberdina izaten al da?

Bai txapelketak beti sortzen du halako "aparraldi" bat. Nik uste dut ona dela sortzen den hau baina neurrian. Adibidez giro honek herriz herriko saio txikiak indartzeko balio du, bertso eskoletan indarra jartzeko, bertsolaritza ikasgai ematen den eskoletan beste hauspo bat izateko.

Nola ikusten duzu Bertso eskolek herri mailan egiten duten lana?

BEC izaten da mugimendu guztiaren erpina, ikusgarriena baina BEC ez litzateke eman-go bertso eskolarik gabe eta tokian tokiko bertso mugimendurik gabe. Garrantzi-

tsuena oinarri hori dela argi daukagu bertsolariok baita bertsozale elkarteak.

Lasarte-Oriaren aspaldi lortu zen gainera gazte eta zahar, urbanita eta baserriko jendea biltzea eta eredu garria da bertso eskola alde horretatik.

Gainera euskara hegemoniko ez den herrietan, bertso eskolak badu beste funtzio bat ere bidenabar egiten duena eta zera da, herriko euskara mugimenduari naturaltasunez laguntzea. Bertso eskola bukatu eta kalera irterekoan euskaraz hitz egiten jarraituko dute eta horrek badu ekarpen bat bertsoaz aparte.

Harrobia bertso eskoletan al dago?

Aspalditik dago eskoletan bai. Nik uste dut aurtengo finalean oholztan izango diren zortzi bertsolariak lehenengo aldiz bertso eskoletan aritutakoak izango direla.

Lehen ni nengoen eta nire garaian bertso eskolarik ez

zegoen. Ia pentsaezina zen halako mugimendurik sortuko zenik.

Duela 30-32 urte sortu ziren lehenengo bertso eskolak. Artean bazegoen halako eztabaida, funtsik gabe bat esango nuke, ea bertsolaria jai edo egiten zen. Zorionez batzuek argitasuna izan zuten hori gainditu eta bertso eskolarik sortzeko, artean Xabier Amuriza, Zumaia aldean Juanito Dorronsoro... eta begira noraino iritsi garen.

Pozgarria da eta gainera ikasgai bat eman diogu gure buruari eta pentsatu nahi dut ingurukoei, hau da, transmisioan jarri behar dela indarra.

Nolako saioa izango da Arrieskalletakoa?

Amets eta Maialen bertsolari handiak egongo dira eta ni xaxatzen. Saio bikaina izango da ziur, hauek gainera finale-rako prestatuak egongo dira eta nerbiorik gabe. Giro ezin hobea izango dugu.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451


LOGOPEDIA

Haurrak-Gazteak-Helduak

TERAPIA MIOFUNTZIONALA

- ARNASKETA ARAZOAK, DEGLUZIOA
- AHOTSAREN TRATAMENDUAK: DISFONIA, AFONIA,...
- IKASKETAREN GORABEHERAK: DISLEXIA, DISORTOGRAFIA, DISCALCULIA, TDA-H,...
- HIZKUNTZA ETA ULERMENAREN ZAILTASUNAK
- AFASIAK

Aurretiko hitzordua: 635 701 374



IZARRA

BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.L.E.

